

CHORINOA KAYOLAN

Zertako ni kayolan,
Zer eginik gaizki?
Ez ote dut bada izan
Biotz-miñik aski?
Airetan ibiltzeko,
Yaunaren doainak,
Eta ez preso egoteko,
Ditut nik egalak.

Bear bada nigarrez,
Barur atzo-danik,
Ene aurrak ni galdez
Daude goseturik,
Laster etartzeko,
Idek beraz bortak!
Maiz eien bazkatzeko
Ditut nik egalak.

Primaderak, oraindik
Senti du negua,
Eta ume bat bakarrik
Daukat lumatua;
Bertzek ez pairatzeko,
Onets nere otoitzak!
Ekien berotzeko
Ditut nik egalak.

Alargun bat naizela
Ez dautzuet erran
Elas! il zitzaitala
Laguna segadan!

Arren miña arintzeko,
Eta eginbideak
Bienak betetzeko
Ditut nik hegalak.

Iragan arratsean,
Egin dut nik amets
(Eta umez doanean,
Amak zer ez sinets!)
Oatzetik urbilchko
Zabiltzala etsaiak,
Ay! lanyera aitzintzeko
Ditut nik egalak!

Baiña berantegi den
Nago beldurturik,
Neon ez dut aditzen
Auben miñik baizik:
Ez, ezta dudatzeko,
Galdu ditut aurrak!
Orai, nik deusetako
Ez ditut egalak.

Doluz errebel, Yauna
Asi naiz mintzatzen,
Bai, nere azken onena
Ari da urbiltzen;
Zerurat airatzeko,
Umentzat alferrak!
Zaizkit baliatuko
Agian egalak.